


2025 Memoria

Giza Eskubideak



Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez (Aiete Jauregia) lan egiten du bake kultura hedatzeko, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimenganako aitortpena eta elkartasuna adierazteko, giza eskubideak sustatzeko eta Oroimen Demokratikoa berreskuratuzeko. Betiere beste udal atal, erakunde, elkarte eta hainbat herritarrekin batera.

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea
Giza Eskubideen Saila

Aieteko Jauregia
Aiete Pasealekua 65, 20009 Donostia
943 48 19 75

giza_eskubideak@donostia.eus
www.donostia.eus/gizaeskubideak



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

01 Biktimei aitortpena

Oroimenerako plakak	6
- Ginés Pujante, Juan Bautista Peralta eta Miguel Orenes-en omenezko plakak	7
- Diego Fernández-Montesen omenezko plaka	8
- Rosa Zarra Marinen omenezko plaka	9
Oroimenaren Eguna	10

02 LGTBI+ politikak

2024an LGTBI+fobiarekin lotutako izandako intzidentziei buruzko txostena	12
------------------------------------------------------------------------------------------	----

03 Artea eta Giza Eskubideak

Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 21. ekitaldia	16
---------------------------------------------------------------------------	----

04 Oroimen Demokratikoa

“Altza, 1931-1937: ilusio galduen kronika” dokumentalaren aurkezpena	20
BOU Gipuzkoa eskulturaren inaugurazioa	21
Oroimen Historikoaren ibilbideak	22
“Oroimenaren bidea” bisita antzeztuak	23
Donostiako Memoria Historikoaren Eguna	24

05 Nazioarteko Egunak

Askatasun afektibo-sexualaren Nazioarteko Eguna	26
Haurren Egun Unibertsala	29
GIB/Hiesaren aurkako borrokaren Mundu Eguna	30
Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna	32

06

Giza Eskubideen Zinemaldia

<u>Donostiako Giza Eskubideen 22. Zinemaldia</u>	34
- <u>Pelikulak, solasadiak eta irisgarritasuna</u>	35
- <u>Sariak eta palmaresa</u>	36
- <u>Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria</u>	37
- <u>Erakusketak</u>	38

07

PaseARTE

<u>PaseARTE. Giza Eskubideei buruzko ibilbideak</u>	40
-----------------------------------------------------	----

08

Biziaren aldeko hiriak

Heriotza zigorraren aurkako hiriak	42
-------------------------------------------	----

09

EHUko Giza Eskubideei buruzko ikastaroak

<u>Giza Eskubideei buruzko XXIX. ikastaroak</u>	44
-------------------------------------------------	----

10

Formakuntza

<u>Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko formakuntza</u>	46
<u>Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko formakuntza</u>	46

11

Elkarteentzako dirulaguntzak

47



01

Biktimei
aitorpena

OROIMENERAKO PLAKAK

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen Batzordearen bitartez, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen memoria, egiarako eskubidea, justizia, erreparazio morala eta duintasuna babesteko konpromiso irmoa mantentzen du.

Helburu hori lortzen laguntzeko ekimenetako bat da **memoria-elementuak** jartzea espazio publikoan, Donostiako biktimak eta terrorismoak eta indarkeriak gure hirian bizia kendu zietenak oroitzeko. Proiektua 2019an hasi zen.

2025eko amaierara arte, 37 plaka jarri dituzte biktima hauen oroimenez:

ETA

- Juan Maria Araluce
- José María Elícegui Díez
- Antonio Palomo Pérez
- Luis Francisco Sáenz Flores
- Alfredo García González
- Gregorio Ordóñez Fenollar
- Francisco Martín González
- Fernando Múgica Herzog
- Rafael Garrido Gil
- Daniela Velasco Domínguez de Vidaurreta
- Daniel Garrido Velasco
- Miguel Paredes García
- Elena Moreno Jiménez
- Eugenio Olaciregui Borda
- Francisco Javier Gómez Elosegí
- José Ángel Santos Laranga
- Josu Leonet Azkune
- Juan de Dios Doval Mateos
- Miguel Ángel Iñigo Blanco
- Juan Antonio Marcos González
- Manuel Orcera de la Cruz
- Antonio Pastor Martín
- Moisés Cordero López
- Lorenzo Motos Rodríguez
- Santiago Oleaga Elejabarrieta
- Ginés Pujante García
- Juan Bautista Peralta
- Miguel Orenes Guillamón
- Diego Fernández-Montes Rojas

Komando Autonomo Antikapitalistak:

- Enrique Cuesta Jiménez
- Antonio Gómez García
- Juan Manuel García Cordero

DRIL:

- Begoña Urroz Ibarrola

Batallón Vasco Español:

- María Jose Bravo del Valle

Poliziaren ekintzak eragindako biktimak:

- Joseba Barandiaran Urkola
- Mikel Zabalza Garate
- Roza Zarra Marin



Ginés Pujante, Juan Bautista Peralta eta Miguel Orenes-en omenezko plakak

Uztailak 5

Donostiako Udalak hiru plaka jarri zituen **Ginés Pujante, Juan Bautista Peralta eta Miguel Orenes** 1979an ETaren biktimak izan zirenen omenez.

Ekitaldia Loiolako zeharbidearen eta Aralar Mendilerroa kalearen arteko elkargunean sortzen den plazan (Kuartelen aurrean) izan zen. Beste batzuetan bezala, omenaldi xume bat egin zen, eta bertan parte hartu zuten Eneko Goia Donostiako alkateak, udaleko taldeetako ordezkariak eta biktimen senideak.

Ginés Pujante García - 41 urte, bi seme eta Polizia Nazionaleko sarjentua -, Juan Bautista Peralta Montoya - 30 urte, hiru seme eta Polizia Nazionaleko kaboa - eta Miguel Orenes Guillamón - 29 urte, seme bat eta Polizia Nazionaleko kaboa - murtziarrak ziren, eta Murtziako Polizia Nazionalaren erreserba-konpainia orokorreko kide ziren.

Loiolako Kuartelera eraman zituzten, errefortzu gisa terrorismoaren aurkako borrokan, eta 1979ko apirilaren 6an iritsi ziren Donostiara. Hurrengo gauean, apirilaren 7an, kuartelera kalez jantzita bueltatzen zirenean, ETako zenbait terroristek ibilgailu batetik metrailatu zituzten. Horietako bi berehala hil ziren, eta hirugarrena bizirik iritsi zen oraindik Ospitale Militararrera, baina ospitaleratu eta gutxira hil zen.



Diego Fernández-Montesen omenezko plaka

Urriak 4

Donostiako Udalak plaka bat jarri zuen, 1978an ETaren biktima izan zen **Diego Fernandez-Montesen** omenez.

Miramar kaleko 1. zenbakian eskaini zitzaion omenaldia ETak eraildako Fernandez-Montesi. Bertan, senitarteko eta lagunekin batera parte hartu zuten Eneko Goia Donostiako alkateak, udaleko taldeetako ordezkariak eta biktimen senideak.

Diego Fernández-Montes Rojas, 63 urtekoa, Ciudad Realekoa eta 9 seme-alabaren aita, infanteriako koronel erretiratu zen, baina Kultura Ministerioaren Donostiako Ordezkaritzan lanean jarraitzen zuen, Miramar kalean. 1978ko abenduaren 17ko goizaldean, eraikin horren sarreran, ETako bi kideek tiro egin zioten. Fernández-Montes ospitalera eraman zuten, eta ordu batzuk geroago hil zen.



Rosa Zarra Marinen omenezko plaka

Azaroak 8

Donostiako Udalak plaka bat jarri zuen 1995ean poliziaren ekintzak eragindako biktima izan zen **Rosa Zarra Marinen** omenez.

Ekitaldia Olaeta plazan izan zen. Beste batzuetan bezala, omenaldi xume bat izan zen, eta bertan parte hartu zuten Jon Insausti Donostiako alkateak, udaleko taldeetako ordezkariak eta biktimaren senideak.

Rosa Zarra Marin, 58 urtekoa, Donostiako Alde Zaharrekoa eta 6 seme-alabaren ama, etxeandrea zen eta Amara Berri auzoan bizi zen. 1995eko ekainaren 22an, Zarra Anoetako estadiotik gertu zegoen mobilizazio batean zegoela, Ertzaintzak jaurtitako gomazko pilota batek sabelean jo zion. Zortzi egun geroago, ekainaren 30ean, ospitalean hil zen.



Ekitaldiaren
bideoa
ikusteko
eskaneatu



Oroimenaren Eguna

Azaroak 10




Urtero bezala, Donostiako Udalak omenaldia egin zien terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei. Ekitaldia Alderdi Ederren dagoen biktimak omentzeko “Oroimena/ Memoria” monolitoan izan zen.

Alderdi Ederreko lorategietan dagoen “Oroimena / Memoria” monolitoan egin zen ekitaldia. Udal korporazioak parte hartu zuen, Jon Insausti alkatea buru zela, baita erakundeetako zenbait ordezkari, terrorismoaren biktimek eta pertsona partikularrek ere.

Minutu batzuk isilean igaro ondoren, lore eskaintza egin zuten, Udal Txistularien bandak lagunduta.





02

LGBTBI+
politikak

2024an LGTBI+fobiarekin lotutako izandako intzidentziei buruzko txostena


Maiatzak 17

Maiatzaren 17an homofobia, lesfobia, transfobia eta bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Donostiako Udalak [2024an Donostian LGTBI+fobiak izandako intzidentzien laugarren txostena](#) aurkeztu zuen.

Dokumentu horren arabera, 2024an LGTBI+ kolektiboko pertsonen aurka **24** intzidentzia izan ziren Gipuzkoako hiriburuan. Horietatik % 79,2 homofoboak izan ziren, gehienbat gizonek eragindakoak eta pairatutakoak, eta batez ere espazio publiko eta erdipublikoetan egindakoak.



Txostena
ikusteko
eskaneatu






Homofobia da oraindik kausa hedatuena, 19 kasurekin, hau da, kasuen % 79,2. Ondoren, **transfobia** eta lesbofobia daude, 2 kasurekin bakoitza.

Txosten honen arabera, gizarte-interakzio handiena dagoen hilabeteetan gertatu ziren intzidentzia gehienak, **udan edo abenduan**, esaterako.


Gune publikoetan, bide publikoan zehazki, erregistratu ziren eraso eta istilu kasu gehien, 24 kasuetatik 10, aurreko txostenetan jasotzen zen ildo beretik. Espazio erdipublikoak gehituz gero, 22 kasu daude (% 91,7). Ondoren, espazio pribatuak (etxeak) daude, % 8,3rekin.



Eraso motarik hedatuenak **hitzezkoak** dira (% 41,9), ondoren **fisikoak eta diskriminaziozkoak** (% 14 kasu bakoitzean) eta tratu apalesgarria (% 11,6). Beraz, zuzeneko erasoek gehiengoa dira.

Intzidentzia edo eraso gehienak **gizonek** egiten dituzte, % 62,5an jarrera eta portaera homofoboekin, batez ere hitzezko eraso moduan, ondoren eraso fisikoa datorrelarik, diferentzia handiarekin.

Kasuen % 70,8an biktima gizona da, % 12,5ean **emakumea**.





03

Artea eta
Giza Eskubideak

Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 21. ekitaldia

2024ko urritik / 2025eko apirilera

2.000 haur eta gaztek baino gehiagok Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikuluan aipatzen diren bizitzeko eskubideari, askatasunari eta segurtasunari buruzko hausnarketa egin zuten beren marrazki eta muralekin.

Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 21. ekitaldian

1.099 marrazki eta 227 mural aurkeztu ziren.

Xabier Baztarrika margolari eta irakasleak, **Elena Odriozola** ipuin ilustratzaileak eta **Ricardo Ramon** Dibulitoon enpresako animazio filmen ekoizleak osatutako epaimahai ofizialak aukeratu zituen sari ofizialak.

Publikoaren saria, berriz, 769 lagunek aukeratu zuten udal webgunearen bitartez, 1.100 boto baino gehiagorekin.



6-8 URTE KATEGORIA

Bakarkako lana

“Espazioan dantzan”
MARI LUZ ETXANIZ
🏆 Sari ofiziala

“Arnasa”
LIBRE
🏆 Publikoaren Sarria

Talde muralak

“Hau, ez zuen gertatu behar”
Nire Esku Tailerra
🏆 Publikoaren Sarria

13-15 URTE KATEGORIA

Bakarkako lana

“Gerraren Paisaia”
MIHISE TAILERRA
🏆 Sari ofiziala

“iBasta!”
MIHISE TAILERRA
🏆 Publikoaren Sarria

Talde muralak

“The Bridge of choice”
ST. PATRICKS SCHOOL
🏆 Sari ofiziala
🏆 Publikoaren Sarria

9-12 URTE KATEGORIA

Bakarkako lana

Izenbururik gabe
ARTEZTU GALERIA
🏆 Sari ofiziala

“Eskubideak Denontzat”
SANTO TOMAS LIZEOA
🏆 Publikoaren Sarria

Talde muralak

“Askatasun falta”
SANTO TOMAS LIZEOA
🏆 Sari ofiziala

“Bizitzarako,
askatasunerako eta
segurtasunerako
Itxaropena”
NIRE ESKU TAILERRA
🏆 Publikoaren Sarria

16-18 URTE KATEGORIA

Bakarkako lana

“Ireki nahi dezuna”
MARI LUZ ETXANIZ
🏆 Sari ofiziala

“Askatu ezazu”
MARI LUZ ETXANIZ
🏆 Publikoaren Sarria

Talde muralak


Hutsik



Aurreko urteetan bezala, Victoria Eugenia antzokiko erakusketa aretoan aurkeztu zituzten lan guztiak, apirilaren 4tik 13ra.

Sari banaketa apirilaren 13an egin zen Udaletxeko Pleno Aretoan.





04

Oroimen
Demokratikoa

“Altza, 1931-1937: ilusio galduen kronika” dokumentalaren aurkezpena

Otsailak 22

Donostiako Udalak, [Ekialdeko Barrutiko Batzarraren](#) ekimenez, “[Altza, 1931-1937: Ilusio galduen kronika](#)” dokumentala argitara eman zuen. Bertan, 1931n Altzako Udalbatza osatzen zuten pertsona hautetsien ibilbidea eta garai honetan Altzak izan zuen garapena berreskuratzen du.

Dokumentala, euskaraz egin gaztelaniazko azpituluekin, [Altza Historia Mintegia](#) elkarteak egin du, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen sailarekin elkarlanean.

Ekitaldia Nao Etxean, Altzako San Martzial plazan, izan zen.

Eneko Goia Alkateak, udal talde politikoetako ordezkariak, Altza Historia Mintegiko kideak eta Altzak herri gisa izan zuen azken udalbatza hautetsia osatu zuten zinegotzien senideak hartu zuten parte.



BOU Gipuzkoa eskulturaren inaugurazioa

Apirilak 13



Donostiako portuan gure memoria demokratikoa berreskuratzeko gune berria dago, BOU Gipuzkoa birsortzen duen brontzezko eskultura baten bidez.

Eskulturak omenaldia egiten die Gerra Zibilean Matxixakoko batailan Canarias gurutzatze frankistaren aurka borrokatu zuen artileztutako bakailao-ontziko eskifaiari eta Euzko Itsas Gudarostearen gainerako kideei. Flota hori 1936ko urrian sortu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Enrique Lekuona itsas ingeniariak diseinatu du pieza, **Juan Pardo** ikertzaileak emandako ontziaren jatorrizko planoetan oinarrituta, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin. Eibarko Alfa Arte enpresan moldatu da.



Matxixako Elkartek

antolatutako ekitaldian, Eneko Goia Donostiako alkateak, Amaia Barredo Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak eta Eider Mendoza Gipuzkoako Diputatu Nagusiak parte hartu zuten, baita Matxixako Kultur Elkarteko kideek eta matxinatutako bandoaren erasoetatik babesteko gerraontzi bihurtutako bakailao-ontzia izan zenaren eskifaiaren senitartekoak ere.

Donostiako Udalaren, Gipuzkoako Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesaren izan du.

Oroimen Historikoaren ibilbideak

Urtarrila / ekaina

DBHko 4. mailako, Lanbide Heziketako eta Batxilergoko 17 ikastetxetako **859** ikaslek baino gehiagok [Memoria Historikoaren Ibilbideetan](#) parte hartu zuten 2024-25 ikasturtean.



Urtero egiten den jarduera honek 1936ko estatu-kolpean eta ondorengo diktadura frankistan hirian esanguratsuak izan ziren tokiak ezagutzeko aukera ematen die ikastetxeei. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Bisitek, Koma Zerbitzu Kulturalak dinamizatuta, harrera ona izan dute ikasleen artean, ikasgeletan gerrari eta frankismoari buruz ematen diren edukien osagarri baitira. Edizio honetan, Donostiako, Urretxuko, Orioko edo Zarauzko hainbat ikastetxek hartu zuten parte, besteak beste.

Hainbat leku bisitatzen dira, hala nola, suhiltzaileen eraikin zaharra (babeslekua), San Jose ikastetxea (atxilotzelekua), San Martzial kalea (bonbardaketak), Maria Cristina hotela (liskarren lekua), Nautikoa (fusilamenduak) eta Dual eskultura (omenaldi-gunea).



Bideoa
ikusteko
eskaneatu

“Oroimenaren bidea” bisita antzeztuak

Iraila / urria



Urtero, Donostiako Udalak bisita antzeztuak antolatzen ditu, kolpe militar frankistan eta ondorengo urteetan gure hirian gertatutakoa ezagutzera emateko asmorekin.

Bisitak Gerra Zibilaren hondamendiak zuzenean edo zeharka sufritu zituzten pertsona guztientzako omenaldia dira. Iraileko larunbatetan eta urriko lehenengo igandean egin ziren. **127** lagunek parte hartu zuten, zazpi bisitatan.

Bi antzezlek, hiriko zazpi puntutan eta ordu eta erdiz, donostiarrek garai hartan bizi izan zituzten esperientziak kontatzen eta antzezten dituzte, Xabier López Askasibarrek idatzitako gidoiari jarraituz.

Antzeztutako istorioen bidez, jendearen konplizitatea eta parte-hartzea bilatzen da, “sentiarazi” eta gerragatazkari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa egiteko.

Donostiako Memoria Historikoaren Eguna



Irailak 13

Irailaren 13an [Donostiako Memoria Historikoaren Eguna](#) dela eta, Eneko Goia Donostiako alkateak, udalbatzak, hainbat elkarterek eta herritarrek **lore-eskaintza** egin zuten frankismoaren biktimen omenez, [Dual eskulturaren](#).



Efemeride honen harira, **Ione Zuloaga Muxika** ikertzaileak **“Emakumeen aurkako errepresio frankista gerra garaian eta ostean 1936-1945”** hitzaldia eman zuen. Hitzaldian, emakumeek Bigarren Errepublikan izan zuten parte-hartzea, gerran miliziano eta korrespontsal gisa izan zuten zeregina eta jasandako sexu-errepresioa, espetxealdiak, tortura eta zehapen ekonomikoak aztertu ziren.

Beste urte batez, Udalak omenaldia egin nahi izan zien biktimei eta 1936ko kolpe frankistan eta diktadurako urteetan askatasun demokratikoa defendatu zituztenei.





05

Nazioarteko
Egunak

Askatasun afektibo-sexualaren Nazioarteko Eguna

Ekainak 28

Udal-talde guztietako ordezkariak **Erakunde Adierazpena** irakurri zuten udaletxeko terrazan, ostadarraren koloreko alfonbra handiaren gainean. Duela urte batzuez geroztik, alfonbra handi hori udaletxeko sarrerako eskaileretan zabaltzen da, LGTBI+ kolektiboaren eskubideen aldeko borrokaren babes eta aintzatespena sinbolizatzeko. Era berean, egun horretan, udaletxeko erdiko balkoian ere kolektiboaren bandera kolore anitza jartzen da.

Horrez gain, jardunaldi hori ikusarazteko, honako jarduera hauek egin ziren:

- Gros auzoko Peña y Goñi kalearen eta Colon pasealekuaren artean **zebra-bidea** ortzadar-banderaren koloreekin pintatzea.
- Donostia Kulturako udal liburutegiek sexu eta genero aniztasunari buruzko **liburu sorta** eskaini zuten maileguan.
- **Kursaal**-a kolore anitzeko banderarekin argiztatu zen.
- Kartelak, DBuseko autobusetan eta hainbat udal instalaziotan.

LGTBIQA+ arloan lan egiten duten elkarteek, berriz, Alderdi Ederretik abiatutako manifestaziora deitu zuten.








Bideoa ikusteko eskaneatu

Ballroom kulturaren erakustaldia, Vogue dantza-erakusketarekin. **Iruñeko Kiki House of Anunnaki kultura-taldearen** emanaldia izan zen, Nefertiti Annunaki amaren zuzendaritzapean, eta BallroomDonostia talde berritzaileko kideek parte hartu zuten. Giza eskubideen eta Gazteria sailek antolatua.



Haurren Egun Unibertsala

Azaroak 20

Donostiako Udalak, Donostia Kulturarekin (Literaktum) eta Mestiza Elkartearekin batera, Haurren Egun Unibertsala ospatzeko antolatu zuten programazioa Okendo Kultur Etxean musikarekin, jolasekin eta sorpresekin egindako Haurren Egun Unibertsalaren 9. Festak hiriko haurtxoko eta gaztelekuetako tailerrek eta udal liburutegietako ipuin-kontalariak bete zuten.



VIH/Hiesaren aurkako borrokaren Mundu Eguna

Abenduak 1



Donostiako Udalak, [Giza Eskubideen](#) bulegoaren eta Donostiako [Musika eta Dantza Eskolaren](#) bitartez, [Acasgi](#), [Harribeltza](#), [Gehitu](#) eta [Ehgam](#) elkarteekin batera, hainbat jarduera antolatu zituen abenduaren 1ean, igandean, [GIB/Hiesaren aurkako borrokaren Mundu Eguna](#) oroitzeko.

- **Lore eskaintza** egin zen Hiesaren biktimen memorialean, Kalkutako Teresa plazan. GIB/Hiesaren aurkako borrokan lan egiten duten elkarteek idatzitako “Komunitatea, eskubideak eta bizitza duina” komunikatua irakurri zuten.

- Udal ekipamenduetan, garraio publikoan eta udaletxean bertan **lazo gorridun kartelak** jarri zituzten, jada Hiesaren aurkako borrokaren ikur bihurtu den ikurra.





Udalaren Musika eta Dantza Eskolak dantza emanaldia eskaini zuen, Tabakaleran, azaroaren 30ean. 90 dantzarik parte hartu zuten. Dantza klasikoko, garaikideko eta euskal dantzako koreografiak bildu zituen, horietako batzuk berariaz horretarako sortutakoak.



Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna

Abenduak 10

Donostiako Udalak Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna oroitu zuen, *“El largo camino. Historias de Ucrania”* antzezlanaren aurkezpenarekin, Antzoki Zaharrean.

Antzezlanak ahotsa ematen die Ukrainako gerraren ondorioak lehen pertsonan bizi izan dituzten pertsonari. Errefuxiatuei, amei, alabei eta gizarte-langileei egindako benetako elkarrizketetatik abiatuta, obrak gatazka garaietan oroimenaren, erresistentziaren eta elkartasunaren indarra erakusten duen giza mosaiko bat eraikitzen du.

Estatuko bi antzerkigileekin eta antzerkigile ukrainar batekin, antzezlanak lekukotasuna eta poesia eszenikoa uztartzen ditu, elkarrizketara eta enpatia gonbidatzeko.





06

Giza Eskubideen
Zinemaldia

Donostiako Giza Eskubideen 22. Zinemaldia

Apirilaren 4tik 11ra




Bideoa
ikusteko
eskaneatu

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak antolatutako **Giza Eskubideen 22. Zinemaldia** apirilaren 4tik 11ra izan zen, eta ikusleen erantzun bikaina eta euskal zinemaren presentzia nabarmena izan zituen.

Lehiaketari **Faisaien Irla** filmaren Euskadiko estreinaldiak eman zion hasiera, eta **Empoderío** dokumentalaren estreinaldia ere hartu zuen. Zinemaldian beste euskal ekoizpen bat ere proiektatu zen, **Flying Hands**. Bestalde, lehen aldiz eman zen Euskal Film Labur Onenari **EITB saria, 16060 egun** filmak jasotakoa. Sail horretan zortzi lan proiektatu ziren.

Faisaien Irla filmaren inaugurazioan bere zuzendaria, Asier Urbieta, eta Jone Laspiur, Sambou Diaby eta Ibrahima Kone protagonistak izan ziren bertan; zinemaldiaren sari berezia **Helena Taberna** nafar zinemagileari eman zitzaion itxiera-ekitaldian; eta beren filmak aurkeztera etorri ziren Lara Izagirre, Lidia Zelović, Marta Gómez, Nagore Eceiza eta Paula Iglesias zinemagileak.



Era berean, eztabaida eta mahai-inguruetan parte hartu zuten, besteak beste, honako hauek: **Esteban Beltrán**, Amnistia Internazionalako Espainiako Ataleko zuzendaria; **Raquel González**, Mugarik Gabeko Medikuen Espainiako koordinatzailea; **Juan Francisco Calvo**, Amical de Mauthausen y otros campos y de todas las víctimas del nazismo erakundeko presidentea; Emilio Doménech kazetaria; **Alfred Cunningham**, Nazio Batuen Erakundeko gai indigenetan aditua; eta **Josefina L. Martínez** idazle argentinarra.



PELIKULAK, SOLASADIAK ETA IRISGARRITASUNA

Zinemaldian guztira 25 nazionalitateko **48 film** (25 film luze eta 23 film labur) proiektatu ziren Victoria Eugenia, Principal eta Tabakalera antzokietan. Programazioa osatzeko, **hiru film** eskaini zituzten **ikasleentzat eta solasaldiak** egin zituzten filmetan jorratutako gai sozialetan adituak diren protagonistekin eta zinemagileekin.

Irisgarritasunaren aldeko apustuarekin jarraitzen du zinemaldiak, ikusmen- eta entzumen-urritasuna duten pertsonentzako saio bereziak eskaini baitzituen.



SARIAK ETA PALMARESA

- Boris Lojkinek zuzendutako **L'Histoire de Souleymane** (Frantzia, 2024) filmak lortu zuen Film Luze Onenaren Ikusleen Saria.
- Luciana Kaplanen **Tratado de invisibilidad**ek (Mexiko, 2024) jaso zuen Film Luze Onenaren Amnesty International Saria.
- Ali Reza Shah Hosseiniren **Black Scarf** (Iran, 2024) filmak Film Labor Onenaren Gazte Epaimahaiaren Saria irabazi zuen 3.000 €-rekin hornitua.
- Iñaki Alforja eta Iban Toledoren **16060 egun** (2024) filmak, berriz, Euskal Film Labor Onenaren EITB Saria (1.000 €), 2025ean lehen aldiz banatu zena.



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN SARIA

Elena Taberna zinemagileak jaso zuen **Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria**.

Helena Taberna zinema-gidoilari, zuzendari eta ekoizlea da. Aretoetan estreinatutako zazpi film luzerekin, Helena Tabernaren ibilbidea hautatzen dituen proiektuen koherentziagatik eta bere estilo zinematografiko pertsonalagatik nabarmentzen da.

90eko hamarkadaren erdialdean hasi zen zinemagintzan, film laburrak, fikziokoak eta dokumentalak idatzi, zuzendu eta ekoizten, besteak beste, **87 cartas de amor** (1992), **Alsasua 1936** (1994) eta **Nerabe** (1996). Bere lehen film luzeak, **Yoyes** (2000), euskal gatazkari buruzkoak eta Ana Torrentek antzeztuak, oihartzun handia izan zuen kritikaren eta publikoaren artean, eta sari ugari lortu zituen.



Helenak, ondoren, **Extranjeras** (2003) estreinatu zuen, migrazioaren fenomenoaren oinarri duena; **La buena nueva** (2008), memoria historikoari eta Gerra Zibilar buruzkoa; **Nagore** (2010), genero indarkeriari buruzko hausnarketa proposatzen duena; **Acantilado** (2016), sekten unibertsoan sakontzen duena; **Varados** (2019), errefuxiatuen egungo egoerari buruzkoa; eta **Nosotros** (2025), maitasun erromantikoari buruzko gogoeta, Isaac Rosaren *Feliz final* nobelaren oinarritua.



8.648 ikusle bertaratu ziren Zinemaldiaren emanaldietara: **4.839** Victoria Eugenia eta Antzoki Zaharreko 21 saioetara, **3.498** ikasle Antzoki Zaharreko goizeko 9 saioetara, eta **311** Tabakaleran Zinema eta Memoria zikloaren barruan programatutako hiru saioetara.

2.264 pertsonak bisitatu zituzten antolatutako [3 erakusketak](#): **Mauthausenetik haratago**. **Francesc Boix argazkilaria** (Okendo Kultur Etxea, maiatzaren 31ra arte irekia), **Kaliforniar ametsa** (Aiete Kultur Etxea, ekainaren 8ra arte irekia) eta **Artea eta Giza Eskubideak, haur eta gazteen 21. edizioa** (Victoria Eugenia Antzokia).



Gainerako jardueretan (mahai-inguruak, antzerkia, **Konekta TÚ online** jokoa) **663** pertsonak hartu zuten parte.

Guztira, **11.575 ikusle** bildu zituen zinemaldiak.



07

PaseARTE

PaseARTE. Giza Eskubideei buruzko ibilbideak

2024-2025 ikasturtea



Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 75. urteurrena zela eta, [PaseARTE](#) jarduera diseinatu zen, 2023an. Giza eskubideekin lotutako hiriko hainbat leku eta eskultura erakusten dituen ibilbidea da.



Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta daude eta doakoak dira. Besteak beste honako leku hauek zeharkatzen ditu: Dual eskultura, Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimen omenez; "Oroimena / Memoria" monolitoa, indarkeriaren biktima guztiak oroitzen dituena; Clara Campoamoren eskultura edo Abuztuaren 31 kalea. Gune horietan, Adierazpenean islatzen diren gaiak lantzen dira, besteak beste, bakea, askatasuna eta emakumearen eskubideak.

Joan den ikasturtean 11 ikastetxetako **648 ikaslek** parte hartu zuten, 369 neska eta 279 mutil





08

Biziaren aldeko
hiriak

Biziaren aldeko hiriak

Heriotza zigorraren aurkako hiriak

Azaroak 30

Donostiako Udalak berriro ere bat egin zuen **“Biziaren aldeko hiriak / Heriotza-zigorraren aurkako hiriak”** nazioarteko ekimenarekin. Jarduera azaroaren 30ean ospatzen da duela 23 urtetik eta, besteak beste, [Sant’Egidio](#) komunitateak eta [Amnesty International](#)-ek bultzatzen dute.

Egun horretan gogorarazten da lehenengo aldiz ezeztatu zela heriotza-zigorra, 1786. urtean, Toscanako Dukerri Nagusian.

Amnesty Internationalaren **“Heriotza-zigorrak eta exekuzioak”** Txosten Globalean jasotzen denez, 2024an, 1.518 exekuzio erregistratu ziren 15 herrialdetan. Hau da, 2023an izandako 1.153 exekuzioekin alderatuta, % 32 gehiago.

Gaur egun, guztira 144 herrialdek indargabetu dute heriotza-zigorra beren legerietan edo praktikan, hau da, munduko herrialdeen bi herenek baino gehiagok. Hala ere, 2024. urtearen amaieran, gutxienez 28.058 pertsona zeuden hiltzera kondenatuta munduan.





09

Giza Eskubideei
buruzko ikastaroak

Giza Eskubideei buruzko XXIX. ikastaroak

2025eko urritik 2026ko apirilera

EHUK Donostiako Udaleko Giza Eskubideen bulegoaren babesarekin antolatzen dituen [Donostiako Giza Eskubideei buruzko Ikastaroak](#) 29 urte bete dituzte.

Edizio honetan, [programan](#) gaurkotasun handiko gaiet buruzko hitzaldiak izango dira, besteak beste, Gazako egoera, indarkeriaren eragina Euskadin, immigrazioa eta protesta-eskubidea demokrazietan.




Escanea
para ver la
conferencia

Besteak beste, **Mikel Ayestaran** eta **Sonia Moreno** kazetariak eta **Francesca Albanese** Nazio Batuen Erakundeko kontalari bereziak parte hartuko dute.

Ikastaroak osatzeko, bi beka emango zaizkie ikasleei, **Estrasburgoko René Cassin** Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren urteko bilkuran parte hartzeko. Horrez gain, txosten guztiak biltzen dituen argitalpena egingo da, urtero moduan.





10

Formakuntza

Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko formakuntza

Azaroak 11 eta 18

Aurreko urteetan bezala, Giza Eskubideen sailak ikastaro teoriko eta praktiko bat antolatu zuen, udal langileak sexu-aniztasunaz, sexu-orientazio eta -identitateaz eta genero-adierazpenaz sentsibilizatu eta prestatzeko. Deseraikizeko profesionalak eman zuten


Kurtsoaren helburua da diskriminaziorik eza bermatzea, LGTBI+kolektiboaren errealitateak behar bezala tratatzea. Baita politika publikoen diseinuan, praktikan eta egunerokotasunean a txertatzea ere.

Udaleko hainbat sail eta erakundetako 25 lagunek hartu zuten parte.

Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko formakuntza

Martxoaren 27an eta maiatzaren 9an

Biltzenek, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako zerbitzuak, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko prestakuntza eman zuen. 25 pertsonak parte hartu zuten. Besteak beste, udal langileak, Udaleko ordezkari politikoak eta Hirugarren Sektoroko kideak



Ikastaroan, pertsonen jatorriaren edo kulturaren araberako irudi ez-diskriminatzailea eta ez-estereotipatua sustatzeko aukera ematen duten kontzeptuzko eta araugintzako elementuak eskaini ziren, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza ziurtatzeko.

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea
Giza Eskubideen Saila

Aieteko Jauregia
Aiete Pasealekua 65, 20009 Donostia
943 48 19 75

giza_eskubideak@donostia.eus
www.donostia.eus/gizaeskubideak

